

## 2.– ADOPZIOA

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila da adopziorako administrazio prozedura izapidetu behar duena. Prozedura horren xedea babesik gabe dagoen umea edo nerabea ordezeko familia gune batean integratzea da, baldin eta gune horrek egokitasun baldintza jakin batzuk betetzen baditu eta, beti ere, adingabearen interesen defentsari erabateko lehentasuna eman ondoren jarduketa hori egokia bada.

### 2.1.– Estatuko adopzioa

Babesgabetasun egoeran dauden umeei egoitza egonkor bat ematera bideratutako **haurren babes neurri** bat da.

**Adopzio-hartzaileak** izan daitezke 25 urtetik gorakoak —bikotekideak izanez gero, nahikoa da haietako bat izatea—. Adoptatzen duten umeak baino 14 urte gehiago izan beharko dituzte, gutxienez.

Ezin da adoptatu albo-lineako 2. mailako ahaide edo ondorengorik.

Honako hauek **adapta** daitezke:

- 18 urtetik beherako pertsonak, emantzipatuta ez daudenak.
- Adinez nagusi diren pertsonak, baldin eta 14 urte izan baino lehenagotik modu etengabean bizi izan badira adopzioa eskatzen dutenekin.

Umeak adoptagarritasun egoeran egon daitezke arrazoi hauen ondorioz:

- Filiazio ezezaguna.
- Guraso-ahala kendu zaien gurasoak.
- Adopziorako baimena ematen duten gurasoak.
- Zurztasuna.

Adopzioa beti egiten da **epai judicial** bidez, aldez aurretik Egokitasun adierazpena egin behar da, baita Bizkaiko Foru Aldundiak egindako adopzio proposamena ere.

12 urtetik gorako pertsonak eta haien adopzioa eskatzen dutenek baimena eman behar dute.

## Ibilbidea

---

- 1.– **Informazio-bilera:** honako hauei buruzko informazioa: adopzio nazionaleko prozesuak, esleipen-irizpideak, espedientearen administrazio-tramitazioa... Orientazioa eta aholkularitza gai horien inguruan.
- 2.– **Prestakuntza-prozesuan parte hartzeko eskabidea entregatzea.**
- 3.– **Prestakuntza-prozesua:** adopzio-hartzaileentzako prestakuntza-prozesuan parte hartzea.
- 4.– **Elkarrizketa pertsonala:** eskaintza eta eskatutako dokumentazioa jasotzea, zalantzak argitzea. Eskaera erregistratzea eta administrazio-espedientea irekitzea.
- 5.– **Itxaronzerrenda**
- 6.– **Azterketa psikosoziala:** elkarrizketa psikologoekin eta gizarte langileekin, bisita etxera. Txosten psikosozialak eta egokitasun/desegokitasun proposamenak egitea.
- 7.– **Haurrak eta Nerabeak Babesteko Batzordea:** Egokitasun/Desegokitasun proposamenak onestea, Foru Agindua edo Ebazpena jaulkitzea, —Egokitasun/Desegokitasun Ziurtagiriarekin—.
- 8.– **Esleipena eta harrera-prozesua:** moldatzeko epea, Adopzioa baino lehenagoko familia egokitzapena eta jarraipenak. Erabaki judizialak ere barne hartzen ditu (familia harreraren autoa, guraso-ahala kentzeko epaia, bestelakoak).
- 9.– **Epaitegiari adopzio-proposamena egitea eta adopzioaren auto judiziala.**
- 10.– **Adopzioaren osteko jarraipena:** umearen jarraipena egitea Adopzioaegin osteko 2 urteko epean.

## Egokitasun-baldintzak

---

*Ekainaren 17ko 114/2008 Dekretuaren 11. artikulua arabera, adoptatu nahi duten pertsonen egokitasunaren balorazioan lehentasuna emango zaio umearen edo nerabearen interesei, beste edozein interesen aurretik.*

Hona hemen egokitasun-baldintzen zerrenda:

- 1.– Bizimodua ateratzeko nahiko baliabide egonkor izatea.
- 2.– Osasun fisiko eta psikiko ona izatea, hau da, beste pertsona batzuen arretarik behar ez izatea, ezta laguntza garrantzitsurik ere, eguneroko oinarrizko zereginak gauzatzeko, edo, baliaezintasun intelektuala edo gaixotasun mentala duten pertsonen kasuan, beste laguntzari behar ez izatea autonomia pertsonala izateko, eta umearen edo nerabearen arreta normalizatua bermatzea.

- 3.– Bikoteen kasuan, egokitasun-adierazpena eskatu baino lehen, bi urtez elkarrekin bizi izatea.
- 4.– Familia bizitza egonkorra izatea.
- 5.– Haurra edo nerabea integratzeko lagungarria den familia eta gizarte giroan bizitzea.
- 6.– Eskatzaileen historia pertsonaletan haur edo nerabearentzat arriskutsu izan daitekeen episodiorik ez izatea.
- 7.– Jarreretan malgu jokatzeta eta egoera berrietara moldatzen jakitea.
- 8.– Haurraren edo nerabearen historia pertsonala eta beraren familiaren historia errespetatzea eta onartzea.
- 9.– Lankidetzaren eta konpromisoaren aldeko jarrera edukitzea.
- 10.– Familia unitateko kideek adopzioaren aldeko jarrera izatea.
- 11.– Adoptatzaileen adinak ezin du eragotzi haurraren edo nerabearen garapena.
- 12.– Adopziorako motibazio nagusiak haurraren edo nerabearen onura eta haren eskubideak babestea izatea.

## Prozedura

---

### Egokitzapena:

Familia elkarrekin bizitzen hasi baino lehenagoko epea da. Epe horren helburua da adingabea eta harrera-familia hurbiltzen eta elkar ezagutzen hastea, Familia harrera formalizatu baino lehen.

Kontaktu eta topaketa horien iraupena eta intentsitatea adingabearen beharren arabera zehaztuko da.

### Familia harrera formalizatzea:

Normalean, harrera horiek prozedura judizialekin batera doaz (familia harrera gauzatzea, gurasoei guraso-ahala kentzea, familia biologikoarekiko bisita-erregimena...).

Fase horretan, kasuaren koordinatzaileak jarraipenak egiten ditu adingabearen interesa babesteko eta familia berrian nola integratu den baloratu ahal izateko.

### **Adopzio-proposamena:**

Umea harrera-familian guztiz integratuta dagoenean eta kasu bakoitzeko alderdi judizial guztiak ebatzita daudenean, Adopzio nazionalako taldeak Adopzio-proposamena sustatzeko beharrezkoa den Txostena egiten du.

### **Adopziorako prozedura judiziala:**

Familia epaitegiak, egokiak diren tramiteak eskatu ondoren, Adopzio-autoa ematen du. Horretatik abiatuz, adopzio-hartzailea eta pertsona adoptatuaren artean natura bidezkoaren antzeko loturak ezartzen dira, eta adingabea eta haren jatorrizko familiaren arteko lotura juridikoak baliogabetzen dira.

### **Adopzioaren osteko jarraipena:**

Bizkaiko Foru Aldundiak beharrezkotzat jotzen dituen jarraipenak egingo ditu adingabea bere familia berrian nola integratu den baloratzeko, Adopzioa gauzatu osteko 2 urteko epean. Helburua da adoptatuaren egoera zein den jakitea eta adopzio-hartzaileek haren oinarriko beharrei behar bezala erantzuten dietela egiaztatzea, baita Adopzioaren ondoriozko egoeretan laguntzea ere (ekainaren 17ko 114/2008 Dekretuko 28. art.)

### **Espedienteak ixtea eta artxibatzea**

## **Adopzioaren ondoreak**

---

Adopzioaren ondorioz, adoptatuaren eta bere lehengo familiaren arteko lotura juridikoak azkendu egiten dira.

Salbuespenez, kasuan kasuko gurasoaren familiarekiko lotura juridikoek iraun egingo dute:

- Adoptatua adoptatzailearen ezkontidearen semea edo alaba denean, nahiz eta ezkontide hori hilik egon.
- Gurasoetarik bakar bat denean legez halakotzat izendatua, betiere adoptatzaileak, hamabi urtetik gorako adoptatuak eta bere lotura irautea nahi duen gurasoak eskatzen badute ondore hori.

Adopzioan ez dago atzera egiterik, eta kasu bakarrean iraungi daiteke, alegia, umea adopzioan hartu eta bi urte igaro baino lehen adostasuna adierazi ez duen edo Legean ezarri bezala entzun ez duten aitak edo amak hala eskatzen badu, baina beti ere adingabeari kalterik sortzen ez bazaio.

## Dokumentazioa

---

Ume bat adoptatu nahi duten pertsonen adopzio-eskaintza aurkeztu behar diote Bizkaiko Foru Aldundiari; agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

- Jaiotzako ziurtagiri literala.
- Identifikazio agiriaren fotokopia konpultsatua.
- Argazki egokia.
- Familia liburuko orrialde guztien fotokopia konpultsatuak; horrelakorik ezean, bizi-agiria eta egoera zibilaren agiriarenak.
- Bikoteen kasuan (ezkontideak edo izatezko bikoteak), bi urtez jarraian elkarrekin bizi izan direla ziurtatzen duen agiria: familia liburuaren fotokopia ziurtatua edo Izatezko Bikoteen Erregistroko inskripzioarena (duela 2 urte baino gehiago ezkondu edo inskribatu baziren), altaren data jasotzen duten errolda-agiria, edo bizikidetza-ziurtagiria.
- Etxebizitzan bizi diren pertsona guztiak aipatzen dituen errolda-agiria edo agiriak, eta, bertan, eskaera egiten duten pertsonak Bizkaiko udalerrri batean bizi direla ziurtatzea.
- Ezkonduta egonez gero, ezkontza-ziurtagiri literala.
- Eskaera egiten duten pertsonen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren aitortpenen fotokopia konpultsatua, aitortutako azken ekitaldikoak, edo, egokia bada, aitortpena aurkeztetik salbuetsita egotearen ziurtagiria, Foru Ogasunak jaulkia.
- Familia medikuak betetako txosten medikoa. Haren bidez, egoera fisikoa eta psikikoa ziurtatu behar dira, baita adingabea zaintzea galarazten duen edozein gauza ez izatea (inprimakiak erantsi dira). Beste pertsona batzuekin batera bizi badira, haietako bakoitzaren txosten medikoa.
- 18 urtetik gorako beste pertsona batzuekin bizi badira, haietako bakoitzaren aurrekari penalen ziurtagiria (eskaera egin duten pertsonen aurrekari penalen ziurtagiria Bizkaiko Foru Aldundiak ofizioz eskatuko du, Eskaeraren inprimakiaren datuen babeserako klausulan jasotzen den bezala).
- Zinpeko aitorten ofiziala.
- Behin baino gehiagotan ezkondu edo izatezko bikote egin bada, lehenagoko familia-liburuaren/liburuen fotokopia aurkeztu beharko da bikote horietan seme-alabarik izan duten jakiteko. Bereizi, dibortziatu edo alargun geratu badira, familia-liburuaren fotokopia aurkeztu beharko dute, eta, egokia bada, bereizketa- edo dibortzio-epaiaren fotokopia, edo heriotza-ziurtagiriarena.
- Adopzioa eskatzen duten pertsonentzako prestakuntza-ikastarora joan izanaren ziurtagiriaren fotokopia.
- Egokitasuna behar bezala baloratzeko lagungarri gerta daitezkeen agiri guztiak.